

ETXEBIZITZAK. Urtebeteko gogoetaren ondoren, txostena aurkeztu die Garapen Kontseiluak hautetsiei

Etxebizitzen prezioa %27 garestitu da Ipar Euskal Herrian azken bi urteotan

Orube gutxiago erabiliz, etxebizitza gehiago egiteko gomendatu die Garapen Kontseiluak Lapurdiko herriko etxeei



BOB EDMÉ

Duela bi urte amaitutako etxebizitza batzuk, Uztaritzen. Lapurdi barnealdera gero eta herritar gehiago joaten da bizitzera.

ETXEBIZITZA ESKASIA

18 eskari etxe bakoitzeko

4.300 etxe eskari zenbatzen dira egun, hots, 18 etxe bakoitzeko. Gainera, etxea erosteko aurrekontua %27 hazi da azken bi urteetan, hilabete sariak ez direlarik emendatu. Familiek ezin dute etxerik atzeman kostaldean, eta ugari dira Lapurdi barnealdera bizitzera doazenak. Horrek prezioen emendatzea eragiten du. Herriak lotoki bilakatzen dira, eta ez da ekonomia ekimenik sortzen.

Norabidea aldatu beharra

Egoera horren «norabidea aldatzeko, orube gehiago sortu eta biziguneak eskaintzeko, gogoan oinarritu politikak behar dira», azpimarratu du Bernard Darretxe Garapen Kontseiluko lehendakariak. Ingurumenari edo etxebizitza eskaintzari doakionez, orube gutiago baliatuz etxebizitza gehiago egitea da proposamen nagusia, hau da, etxebizitza kopurua dentsifikatzea. Horren kariatara, BAM eta Donibane Lohizuneko hautetsi eta instituzio arduradunei ez ezik, Lapurdi barnealdeko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako hautetsiei ere horri buruzko jarrera har dezaten eskatu zaie.

Garapena onartu beharra dagoela adierazi du Garapen Kontseiluak, baina «merkatuaren lege salbaia edo aldaketarik nahi ez duen jarrera kontserbadorea saihestuz».

Sei proposamen egiten dizkio Garapen Kontseiluak Hautetsien Kontseiluari: herriek orube erreserba bat eta etxebizitzaren tokiko behatokiak osatzea; Garapenerako Egitasmo Komunaren (PCD) lanabesa erabiltzea; lurraldeetako koherentzia eskemak bultzatzea (BAMen eta Donibane Lohizuneren inguruan osatzen ari diren SCOT egiturak), eraikitzeke lurrraren inguruan estrategia komuna sortuz. Hirigintza eta antolaketa lanabesak baliatzea ere aholkatu ditu herriko etxeak, hots, testuen gauzatzera, batez ere, lurra eskuratzeko lehentasuna indarrean ezarritik.

Aitor Renteria | **BAIONA**

Azken bi urteotan %27 garestitu dira etxebizitzak Ipar Euskal Herrian. Garapen Kontseiluak orube gutxiago erabiliz etxebizitza gehiago egiteko aholkua eman du, Lapurdin dagoen lur eskasiari eta biztanleen emendatzeari aurre egiteko. Garapen Kontseiluak etxebizitzaren inguruko hausnarketa luzea egin du azken urtean. Gogoeta horretan 60 kidek hartu dute parte, ahal bezain ikuspegi zabalean oinarritzeko. Uzta abenduaren 19an onartu proposamena izan da. Kontseiluaren izaria aholkularia denez, Hautetsien Kontseiluari dagokio neurriak ezartzea.

Hausnarketa egungo errealtatearen argazki edo diagnostik abiaturik da. Bertan islatu dira Ipar Euskal Herriak dituen arazo nagusiak. Biztanleen emendatze azkarra (82 eta 90. urteetan, %5,6; azken hamarkadan %5,1) izan du Lapurdik bereziki, eta merkaturatu etxebizitzak %15,3 emendatu dira. Nahiz eta Ipar Euskal Herrian 146.250 etxebizitza egon, eskaintzak ez ditu aseetzen eskariak. Ipar Euskal Herrian, ohituraz, nukleo bakarrenetako etxebizitza eraikitzea da familien ametsa.

4.300 etxe eskari zenbatzen

dira egun, hots, 18 eskari etxe bakoitzeko. Horrez gain, aurrekontua %27 hazi da azken bi urteotan, baina hilabete sariak ez dira emendatu. Familiei ezinezkoa bilakatu zaie etxea erostea kostaldean, eta ondorioz, ugari dira Lapurdi barnealdera doazenak bizitzera, hango prezioen

emendatzea eraginez. 2015ean, Ipar Euskal Herriak 30.000 biztanle gehiago ukanen dituela espero da. Diagnosi horretatik abiatuz, lurraldea mehatxatzen duten arriskuak nabarmendu ditu Garapen Kontseiluak: Lapurdi barnealdea lotegi bilakatzeko, etxeak eraikitzeke eremu

handiegia kontsumitzea, orube eskariak gero eta eremu zabalgan ematea, gazte eta familia xumeenak toki merkeagotara bultzatzea, Lapurdi barnealdean ekonomia ekimena itotzea eta, azkenik, barnealdea odolustea ekonomia kostaldera erakarriz.

PROPOSAMENAK

Arriskuen argazkian oinarrituz egin dira proposamenak

Diagnostik abiatuz, orube tipiangoan etxebizitza gehiago eraikitzea aholkatu dute, hots, eraikuntzen dentsitatea handitzera, arkitektura moten arteko oreka atxikiz.

ARRISKUAK

BIZTANLEEN HAZKUNTZA. 2015erako 30.000 biztanle gehiago izatea espero dute.

ORUBEAK. Gehiegizko erabilpena dentsitate txikian, ondorioak ingurumenean. Ihardespenik ez duten 4.500 etxe eskari daude gaur egun.

PREZIOAK. Gazteak eta familia xumeak Lapurdi barnealdera doaz bizitzera, baina, ondorioz, han ere prezioak gora egiten du, eta garestitzea barnealde osora hedatzen da.

ONGIEZ SOZIALA. Herriak lotoki bilakatzen dira, ez da jarduera ekonomikorik. Herrian lo egiten da eta kanpoan lana.

EKONOMIA. Jarduera guti dago Lapurdi barnealdean. Gero eta dependentzia handiagoa dago kostaldearekin.

SEI NEURRI NAGUSI

LURRAREN BEHATOKIA. Sortu Hirigintza Agentziaren baitan. Arazoen ikuspegi zabala eskaini eta estrategia komunak eraiki.

KOHERENTZIA ESKEMAK BULTZATU. SCOT izeneko eskemak bultzatu Lapurdi barnealdean.

LEGEZKO LANABESAK. Saltzerakoan, erosteko lehentasuna indarrean ezarri. Legeak baliatu.

INSTITUZIOEKIN ELKARLANA. Baliabideak mutualizatu gogozko politika baten oinarrituz.

LURRAREN KUDEAKETA. Etxebizitzak sortzeko eta ekonomi jarduerak bermatzeko lurren erreserba osatu. Kudeaketa erakundea aztertu.

HAUTETSIEN KONTSEILUA. Antolaketa eta hirigintzan, Ipar Euskal Herria koherentzia gune bilakatu behar da.